

Irrien Lagunak Oarsoaldean egitasmoko kideek hilabeteak daramate lanean. Herriz herri adostutako ekimenak aurrera eramaten ari dira pixkanaka, herriei beste kolore bat emateko ahaleaginean.

Umeak beraien herria amesten

Erredakzioa

Amestu, sortu, gauzatu, hobetu. Lau zutabe horien gainean dago eraikita Irrien Lagunak Oarsoaldean egitasmoa. Zertarako, ordea? Aisia egitarau hezitzailea antolatzeko; euskaraz bultzatzeko arnaguneak sortzeko;

heldu, gazte eta haurrak elkarlanean arituz, lan egiteko modu berri bat sortzeko; herriaren alde modu aktiboan parte hartzeko, eta herrigintza sustatuz herria denen artean hobetzeko. Horiek dira egitasmoko kideen asmoak, ametsak, bidea eginez egi bihurtzen ari direnak.

Izan ere, hilabeteak daramate

Pasaia, Errenteria-Oreretako, Lezoko eta Oiartzungo Irrien Lagunen taldeek gidoi horren araberako lana egiten, sortzen. Lehenengo, biltzea tokatu zen, herri bakoitzean zer egin nahi zen zehazten hasteko, eta bide horretan, Irrigintza Jaia egin zuten Oiartzunen abenduaren 2an. Arrakastatsua izan arren, zerbai-

ten hasiera besterik ez zen izan. Hau da, Oiartzunen bertan aurkeztu zituzten haurrek euren herriak hobetzeko landutako proposamenak, eta hango konpromisoetatik abiatuta, lanean hasi ziren.

Lan horrek guztiak dagoeneko emaitzak eman ditu. Herriz herri antzematen hasi da beste kolore bateko Oarsoaldea sortzeko aha-

legina egiteko prest dauden herritarrak badaudela, haurrentzako herri egokiak sortuz, urrats txiki baina eraginkorrenkin. Hortaz, jarraian dauden azalpenak amets baten, edo batzuen, adibideak bestetik ez dira. Baina ez dira amets soiletan geldituko; gauzatzen ari dira, elkarlanaren bidetik.

Lezo ▶



MARKESANE HELBURU

Neguan Lezon haurrek egin zuten parte hartze prozesuaren ondorioz, Markesaneko orube hutsean hainbat ekimen egiteko ideiak landu, horiek alkateari aurkeztu, eta burutzen hasi dira. Hala, bertan, murala margotu, eskultura jarri, zuhaitz bat landatu, barraskilo lasterketa bat antolatu, edo tirolina jarri nahi dute haurrek. Ekainean landuko dituzte bost proposamen horiek. HITZA

Pasaia ▶



BARRUTI ARTEKO LOTURA INDARTU

Umeentzat oztopo bat da barrutien arteko banaketa, aisiaz eta beste barrutietako lagunen harremanaz gozatzeko. Hortaz, Pasaia haurrek bi proposamen zehatz lehenetsi dituzte: badia inguratuko duen bidegorria egitea, eta motora zerbitzua osatzea. Jada egin dituzte beste hainbat gauza: Pasaia badia lantzen ari diren arkitekturako ikasleekin bilera, eta Donibaneko Mataderoko paretak margotu, besteak beste. HITZA

Oiartzun ▶



HERRIKO PARETAK MARGOTZERA!

Oiartzungo haurrek herria hobetzeko proposamen asko egin dituzte, baina horietako batean denak bat datoz: herriko paretak kolore ematea, margotzea. Hilaren 4an margoketa horiek egiteko teknikak ezagutu zituzten, esaterako. Alkatearekin ere bildu ziren, eta hark esan zien bidegorriko komunak margotzeko aukera zegoela. Hilaren 26an bilduko dira hori egiteko; herriari kolore emateko. HITZA

Errenteria-Orereta ▶



KOLOREA ETA NATURA ARDATZ

Errenteria-Oreretako haurrek naturarekin eta kolorearekin lotzen dituzte euren ametsak. Hasi dira jada ametsen bide hori urratzen, esaterako, herriko horma grisak koloreztatzen hasi dira. Ekainean hasiko dira naturarekin lotutako ekintzak antolatzen, eta besteak beste, irteera bat egingo dute. Gainera, alkatearekin ere bildu dira Irrien Laguneko haurrak, euren proposamenen berri zuzenean emateko. U. ETXEBESTE